

The logo for Hurkoa features a stylized white cross symbol to the left of the word "Hurkoa" in a white serif font. A thick white horizontal line is positioned below the text.

Hurkoa

# Ezgaitasuna eta tutoretza

Morlans 13, behea  
20009 Donostia  
Tel. 943 468 956  
idazkari@hurkoa.eus

[www.hurkoa.eus](http://www.hurkoa.eus)



## Zer da legezko ezgaitasuna?

Jaiotzen garan unetik, pertsona guztiak eskubide eta betebeharren titularrak gara. Horri “gaitasun juridikoa” esaten zaio.

Baina bizitzan zehar, norberak ezin ditu beti eskubide eta betebeharrak horiek kudeatu edo egikaritu. Horretarako, ezinbestekoak dira bai ezagutza (egiten diren ekintzak ulertzea) eta baita borondatea ere (era librean egin nahi izatea). Bi baldintza horiek, ezagutzak eta borondateak, “jarduteko gaitasuna” deritzona osatzen dute; hau da, pertsona batek bere burua gobernatzeko izan beharreko gaitasuna. Bi osagai horietako bat falta denean, pertsona ezgaia dela esango dugu.

Legeak aurreikusten du, adinez nagusi diran pertsonak badauzkatela

bai ezagutza eta baita borondatea ere, eta beraz, beraien burua gobernatzeko gai direla; hala

ere, adinez nagusi izan arren, pertsona batzuk, bai gaixotasunagatik edota ezintasun fisiko edo psikiko batengatik, ezagutza eta/edo borondatea gutxituta daukate, eta, beraz, ezin dute beraien burua gobernatu.

Gaitasunaren mugapen horrek legearen aurrean eragina izan dezan, epai judizial baten aitortpena behar da. Gaitasun aldaketa horren helburua pertsona ezgaia eta bere interesak babestu eta defendatzea da, berak edo beste pertsona batzuek bere kaltetan burutu ditzaketen jardueretik edota bere onurarako bere izenean ekintzak burutu ahal izateko.

## Nola tramitatu daiteke?

Abokatu eta prokuradorearekin aurkeztutako demanda judizialaren bidez honakoen izenean:

- Ezgaitu beharreko pertsona bera
- Ezkontidea edo egitatezko bikotea
- Ondorengoak
- Arbasoak
- Neba-arrebak

Fiskaltzak ere egin dezake eskaria, aurreko ahaidetasun harremanik ez duen edozein pertsonak jakinarazi diezaiokelearik ezagutzen duen ezgaita egoera baten berri, tramitazioari ekin diezaion.

Ezgaitasun demandak ezgaitu beharreko pertsonaren benetako helbideari dagokion Lehen Auzialdiko Epaitegian tramitatuko dira.

## Beharrezkoak diren agiri eta datuak

- Txosten medikua: ezgaitasuna eragiten duen gaixotasun edo urritasunaren diagnostikoa jasotzen duena.

- Jaiotza-agiri literala.
- Ezgaitu beharreko pertsonaren Nortasun Agiriaren kopia.
- Hurbileko senitartekoen zerrenda, izenak, abizenak eta helbideak eta tutela kargua onartzeko borondatea adieraziz.

## Nolakoa da tramitea?

Ezgaitzeko prozedurak ahalik eta bermerik gehienak eskaini nahi ditu frogatzen bitartez (ezgaitu nahi den pertsonaren epaile eta auzitegi medikuaren azterketa, gertuko senitartekoen audientzia, helburu horretarako baliagarriak diren beste edozein medio, ...) ezgaitze karirik dagoen ala ez egiaztatzeko. Frogatutzat jotzen bada, hauteman duen ezgaitze mailarekin bat datorren gaitasun eraldaketaren mugak zehaztuko dituen epai bat emango du. Gainera, egokien

iruditzen zaion babes mota erabakiko du eta ardura hori egikaritutako duen pertsona izendatuko du.

# Pertsona ezgaitua babesteko neurriak

## Tutoretza

Ezgaitasun osoa adierazten den kasuetan aplikatu behar da, eta baita ere, zati bateko ezgaitasuna adierazi denean eta epaileak beharrezkotzat jotzen duenean. Erregimen honetan, tutoretzapeko pertsonak ezin izango du jardun legez ezgai izendatu izan den arloetan. Kasu hauetan pertsona horren tutoretza duenak ordezkatuko du, arlo horietan hartu beharreko erabakien erantzukizun osoa bere gain hartuta.

Nortzuk izango dira tutoreak?

1. Ezgaiak berak izendatutakoa.
2. Ezgaiarekin bizi den ezkontidea.
3. Gurasoak.
4. Gurasoek beraien azken borondatea adierazteko xedapenetan izendatutako pertsonak.
6. Ondorengoak, arbasoak edo neba-arrebak.

Epaileak ordena hori alda dezake edo pertsona horiek guztiak alde batera utzi ditzake, ezgaituaren mesedetan bada. Pertsona hauetariko inor ez badago, epaileak ezgaiarekin daukan harremana kontuan hartuta egokiena iruditzen zaiona izendatuko du.

Tutorea epaitegiaren kontrolpean dago: tutoretza onartzean inbentarioa egin behar du, urtero kontuak aurkeztu behar ditu eta gestio garrantzitsuetarako aurretiaz baimena eskatu behar du.

Tutoretza amaitzeko arrazoiak: ezgaitutako pertsona hiltzea edota ezgaituak gaitasuna berreskuratzea. Tutorearen heriotza, kargutik kentzea edo uko egitea gertatzen bada, beste tutore bat izendatuko da.

## **Kuradoretza**

Erregimen hau ondarearen administrazioarako aplikatzen da zati bateko gaitasungabetzeetan, epaileak gaitasunaren afekzio gradu bat ikusten duenean baina ez erabatekoa.

Kasu hauetan, kuradoreak ez du ezgaitua ordezkatzeko, baizik eta ezgaituaren gaitasun falta osatzen du, epaileak epaian zehaztutako arloetan lagunduz.

Hau da, ez ezgaituak ez kuradoreak ezin dute bakarrik jardun era baliogarrian; biek bat eginda aritu behar dute.

Kuradoaren izendapenak tutorearen izendapenerako azaldutako arau berdinak jarraitzen ditu.

Kuradoreak egiten dituen gestioen kontuak eman behar ditu.

Kuradoretza amaitzeko arrazoiak tutoretza amaitzeko dauden berdinak dira.

## **Kontutan hartu beharreko gogoeta batzuk**

- » Fiskaltzak demanda jarri ondoren, Epaitegiak ezgaituarekin eta bere familiarekin izango du harremana, batez ere defentsa judiziala eta tutoretza bere gain hartzeko proposatutako pertsonarekin. Hurkoak argibideak eta aholkua emango dizkio pertsona horri, hark hala eskatzen duenean.
- » Ezgaitzeko prozedurak, behin hasita, bere bidea jarraituko du aldean borondatea kontutan hartu gabe eta epai batekin bukatuko da, ustezko ezgaia hiltzen den kasuetan izan ezik. Hala bada, familiak heriotza horren berri eman behar dio Epaitegiari, heriotza-agiri literala aurkeztuta.
- » Ezgaitzeko prozedurak ez dauka zerikusi zuzenik beste gestio batzuekin, gizarte-zerbitzuak edo diru-laguntzak eskatzeko eta abarrerako burututakoekin. Halakoak dagozkien erakundeetan tramitatuko dira.

## Hurkoaren Familia zerbitzua

Zerbitzuaren helburua Hurkoak duen ezagutza eta esperientzia, eskatzen duten famili eta profesional guztiei besterentzea da. Horrela izanik, gaitasungabetze prozeduraz eta tutoretzaren egikaritzeaz informatzen da eta baita tutore izateko egokitasunaz kasu bakoitzean. Tutoretzaren egikaritzean zehar sortu daiteken edozein argibide eskaerari ere aholku ematen zaio eta baita kargua egikaritzean egin beharreko gestioetarako laguntza ere.

Familiei orientazio eta aholku zerbitzua Hurkoako gizarte arloko eta zuzenbidearen arloko teknikari batek osatzen dute heldu beharreko egoeraren ikuspegi biak bete nahiean.

Ahaidetasuna dela eta, abokatu eta prokuradorearekin hasi ezin diren kasuetan, familia zerbitzuak aurretik esandakoaz gain, honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Tutore izateko pertsona egokiena identifikatu familiarekin adostasunean.
- Gizarte-txostena egin eta Fiskaltzari aurkeztu, familiak emandako gainerako agiriekin batera.
- Ezgaitze prozeduran zehar eta tutorearen izendapenean aholku ematea, ardura duen familiartekoarekin harremanetan egonik sortu daiteken edozein zalantza argituz, pausu bakoitzean informatuz eta epaitegiarekin harremana erreztuz (idatziak prestatu, kontsultak...).
- Behin tutorea izendatu eta hark kargua onartuta, bere betebeharrak gogoratzea, inbentarioa egitea eta lehenengo urteko kontuak prestatzea.
- Tutoretzaren egikaritzean tutoreak izan dezaken edozein zalantzari aholku ematea.